



CON ESTA POLÍTICA FISCAL, MÁS RECORTES, MÁS PARO Y MÁS CRISIS



Zerga politika justua exijitzen dugu



AZTERKETAK 31

# 2013.ko Hego Euskal Herriko fiskalitateari buruzko txostena

2014ko IRAILA

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

 MANU  
ROBLES-ARANGIZ  
INSTITUTUA

# 2013.ko Hego Euskal Herriko fiskalitateari buruzko txostena

<b>Sarrera</b> .....	<b>3</b>
<b>1. Europarekiko alderaketa</b> .....	<b>3</b>
<b>2. Zerga hitzartuak EAEn. Diru-bilketa eta presio fiskala</b> .....	<b>6</b>
2.1 EAEko diru-bilketa .....	6
2.2 EAEko presio fiskala: zerga hitzartuak .....	9
2.3 Zergaz zergako aitorpena .....	11
<b>3. Zerga hitzartuen fiskaltasuna nafarroan. diru-bilketa eta presio fiskala</b> ...	<b>13</b>
3.1 Nafarroako diru-bilketa .....	13
3.2 Zerga hitzartuen presio fiskala .....	15
3.3 Zergen aitorpena Nafarroan .....	17
<b>4. Erreforma fiskalerako Nafarroako Gobernuaren proposamena</b> .....	<b>19</b>
4.1 Nafarroako Gobernuaren erreforma fiskalaren neurri nagusiak .....	19
4.2 Nafarroako Gobernuaren erreforma fiskalaren proposamenaren balorazioa .....	21
<b>5. Ondorioak eta proposamenak</b> .....	<b>22</b>
5.1 Iruzur fiskalaren aurkako borroka .....	22
5.2 Zerga itzurpenaren aurka borrokatzea .....	24
5.3 Sozietateen gaineko zerga .....	24
5.4 Ondarearen gaineko zerga .....	24
5.5 PFEZ .....	25
5.6 Finantza sektorea .....	25
5.7 Beste neurri batzuk .....	26
5.8 Informazioa eta gizartearen parte-hartzea .....	26
5.9 Erabateko eskumenak zerga arloan .....	26
5.10 Eginkizunak aldatzea EAEn .....	27
<b>Oharrak</b> .....	<b>28</b>

Fiskalitateari buruzko eztabaida funtsezkoa da bidezko gizarte eredia diseinatzeko. Funtsezko garrantzia du, hark eragiten baitu zenbat diru eta nola biltzen duten administrazioek zerga bidez.

Hego Euskal Herrian diharduten Administrazioek egindako doikuntza politikek gastua murriztea dute oinarri; gizarte gastua, bereziki. Politika horien ondorioz, langabezia eta pobrezia handitzen ari dira, bai eta gizartearen babesgabetasuna ere; hau da, babesik gabe gelditzen ari dira baliabide gutxien duen jendea, langabeak, etxegabeak, etab.

ELAn beti esan dugu arazoa ez dela gastua, diru-sarrera publikorik eza baizik. Datu ofizialek diote HEHko gastu publikoa Europar Batasunean batez beste egiten den gastu publikoaren azpitik dagoela; BPGaren 11 puntu azpitik, hain zuzen. Horregatik proposatzen ditugu murrizketez bestelako bideak, hots, batetik, gizarte gastua handitzea, eta, bestetik, diru-sarrera publiko gehiago eskuratzea. Izan ere, txostenean ikusiko dugun bezalaxe, Europako batez bestekoaren oso azpitik daude.

Txosten honetan garrantzi berezia eman diegu zerga-politikarako proposamenei. Azkenaldian, izan ere, alderdi politikoek arma gisara erabiltzen dute zerga-politika haien arteko borroketan. ELAk, ordea, argi eta garbi egina du salaketa, hots, Gobernuak txandakatzen badira ere, zerga-politika ez da aldatzen, eta oraindik ere sekulako aldea dago Europako zerga-politikarekin alderatuta.

Txosten honek, beraz, laguntza-tresna bat izan nahi du bide horretan. Txostenaren helburu nagusia da aldaketarako tarte badela erakustea, bestelako zerga-sistema bat eratu daitekeela, eta beste leku batzuetan bestelako egoerak badaudela, eta hori ere gurean egingarria dela. Beste behin ere, politikarien borondatea behar da; hori besterik ez.

## **1. EUROPAREKIKO ALDERAKETA**

Hego Euskal Herriko (HEH) fiskalitatea aztertzeko, alderaketa bat egin behar da Europar Batasuneko zerga-sistemaren aldean nola gauden ikusteko. Horrek aukera emango baitigu jakiteko zer posizio daukagun nazioartean, eta aukera ere jakiteko zer tarte dugun fiskalitatearen atal bakoitzean.

Lehen atal honetan, presio fiskala izanen dugu aztergai, hau da, barne produktu gordinaren zer portzentaje biltzen duten Administrazio guztiek.

HEHrako eskura dagoen azken datua 2012koa da. Bada, datu horren arabera, presio fiskala BPGaren % 31 da (zerga hitzartu, udal zerga eta Gizarte Segurantzarako kotizazioen artean).

4

Hala ere, Europarako azken datu ezaguna 2011koa da, eta, urte hartan, 27-EBko presio fiskala, batez beste, % 38,8 izan zen. Beraz, HEHrekiko aldea BPGaren 7,7 pgo bilduko zituen.

Nafarroako presio fiskalaren bilakaerari dagokionez, 2008tik 2012ra BPGaren 1,4 puntu galdu dira. Horrek esan nahi du Nafarroan 273,2 milioi euro gehiago bilduko zirela 2012an, 2008ko presio fiskal berari eutsi izan balitzaio.

**Presio fiskalaren bilakaera (%/BPG). 27-EB, 2008-2011**

	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>	<b>2011</b>
Danimarka	47,8	47,8	47,4	47,7
Suedia	46,4	46,5	45,4	44,3
Belgika	44,2	43,4	43,8	44,1
Frantzia	43,2	42,1	42,5	43,9
Finlandia	42,9	42,8	42,5	43,4
Italia	42,7	43,0	42,5	42,5
Austria	42,7	42,4	41,9	42,0
27-EB	39,3	38,4	38,3	38,8
Alemania	38,9	39,3	37,9	38,7
Herbehereak	39,2	38,2	38,8	38,4
Luxenburgo	37,5	39,2	37,5	37,2
Eslovenia	37,3	37,3	37,8	37,2
Hungaria	40,3	40,1	37,9	37,0
Erresuma Batua	37,6	34,6	35,4	36,1
Zipre	38,6	35,3	35,6	35,2
Txekiar Errepublika	34,4	33,4	33,5	34,4
Malta	33,0	33,3	32,6	33,5
Portugal	32,8	31,0	31,5	33,2
Estonia	31,9	35,9	34,1	32,8
Grezia	32,1	30,5	31,7	32,4
Polonia	34,3	31,8	31,8	32,4
EAE	32,7	31,2	32,2	31,7
Espainiar E.	33,0	30,7	32,1	31,4
HEH	32,0	30,9	31,3	31,1
Irlanda	29,8	28,3	28,3	28,9
Nafarroa	29,5	30,0	28,2	28,9
Eslovakia	29,3	28,9	28,1	28,5
Errumania	28,0	26,9	26,7	28,2
Letonia	29,2	26,6	27,2	27,6
Bulgaria	32,3	29,0	27,5	27,2
Lituania	30,1	29,2	27,0	26,0

*Iturriak: Eurostat, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra, Nafarroako Gobernua, IEN, Eustat, Eusko Jaurlaritza*

## 2. ZERGA HITZARTUAK EAEN. DIRU-BILKETA ETA PRESIO FISKALA

### 2.1 EAeko diru-bilketa

EAeko zerga hitzartuen bidezko diru-bilketa (Foru Ogasunek kudeatzen dituztenak) 11.752,1 milioi euro izan da 2013an; hau da, 2012an baino 343,9 milioi gehiago bildu dira; % 3 gehiago. 2008tik hona, diru-bilketak zer bilakaera izan duen aztertzen badugu, ikusiko dugu diru-bilketa 1.082,1 milioi eurotan jaitsi dela. Hau da, zerga hitzartuen diru-bilketak % 8,4 egin du behera, 2008ko datuen aldean.

#### Zeharkako zergen diru-bilketa (milioika eurotan). EAE, 2008-2013

2008	2009	2010	2011	2012	2013
12.834,2	10.792,1	11.700,0	11.480,9	11.408,2	11.752,1

*Iturria: Eusko Jaurlaritza*

2013ko diru-bilketa zuzeneko zergetatik ala zeharkakoetatik datorren aztertzen badugu, gutxi gorabehera zati berdinetan banatua dagoela ikusiko dugu. Horrek esan nahi du antzeko pisua dutela biztanleria guztia maila berdinean zergapetzen dituzten zergek eta errenta maila kontuan hartuta zergapetzen dituztenek:

- Zeharkako zergen bidezko diru-bilketa 5.845,5 milioi euro izan da; hau da, diru-bilketa guztiaren % 49,7. Zeharkako zergek % 4,4 egin dute gora, 2012. urtearekin alderatuta. Horren haritik, 2012ko BEZaren igoera gogoratu beharra dago (tasa orokorra % 18tik % 21era igaro baitzen, eta murriztua, % 8tik % 10era), horri zor baitzaio hein handian azken urteko igoera. Hala ere, 2008tik hona izan den bilakaerak kontrakoa erakusten du, diru-bilketa % 4,5 jaitsi baita azken 5 urte honetan.
- 2012ren aldean % 1,7 igo ondoren, zuzeneko zergak 5.793,1 milioi euro izan dira; guztiaren % 49,3. Kasu honetan, azken 5 urte honetako bilakaerak jaitsiera nabarmena erakusten du diru-sarreretan, 2008an baino % 12,2 gutxiago bildu baita.
- Gainerako zergek eta tasek 113,6 milioi euroko diru-sarrera eragin dute; guztiaren % 1, alegia

**Zerga hitzartuen bidezko diru-bilketa (milioika euro, %/gutzizkoa eta aldaketa % ). EAE, 2008-2013**

	Miloi euro	%	Ald.% 2012	Ald.% 2008
Zeharkako zergak	5.845,5	49,7%	4,4%	-4,5%
Zuzenak	5.793,1	49,3%	1,7%	-12,2%
Gainerakoak	113,6	1,0%	3,6%	-0,1%
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.752,1</b>	<b>100,0%</b>	<b>3,0%</b>	<b>-8,4%</b>

*Iturria: Eusko Jaurlaritz*

Interesgarria da aztertzea nola dagoen banatua zuzeneko zergen bidezko diru-bilketa:

- Laneko PFEZ bidezko diru-bilketa 4.325,5 milioi euro izan da; 2012an, baino % 1,8 gutxiago. Hala ere, zuzeneko diru-bilketaren % 74,7 izan da. Laneko errenten bidezko diru-bilketa 2008ko parametro berberetan mantentzen da, haren aldaketa % 0,1 izan baita.
- Enpresen, profesionalen eta kapitalaren gaineko errenten bidezko diru-bilketa 1.691,7 milioi euro izan da; hau da, 2011n baino % 3,6 gehiago. Zuzeneko diru-bilketaren % 29,2 izan da. PFEZaren diru-bilketak laneko errentetan izan duen bilakaeraren aldean, honelako errenten diru-bilketa % 21,6 jaitsi da azken 5 urte honetan. Honela osatua egon da:
  - Sozietateen gaineko Zergak 1.216,9 milioi euroko diru-bilketa eragin du; hau da, 2012an baino % 7,5 gehiago, eta zuzeneko zergen bidezko diru-bilketaren % 21 izan da. Hala eta guztiz ere, 2008. urtearen aldean, % 28,1 gutxiago bildu da.
  - Enpresen, profesionalen eta kapitalaren gaineko PFEZak 474,7 milioi euroko diru-sarrerak eragin ditu; hau da, 2012an baino % 5,3 gutxiago, eta zuzeneko diru-sarreren % 8,2 da. Errenta hauek 2008an baino % 20,4 gutxiago izan dira.

### Hitzarturiko zuzeneko zergen bidezko diru-bilketa, zerga motaren arabera, egitura eta bilakaera. EAE , 2008-2013

	Miloi euro	%	Ald.% 2012	Ald.% 2008
Lanaren PFEZ	4.325,5	74,7%	-1,8%	0,1%
- Sozietateen g. zerga	1.216,9	21,0%	7,5%	-28,1%
- PFEZ Empr., Prof., Kap.	474,7	8,2%	-5,3%	-20,4%
Errenta Empr., Prof., Kap(*)	1.691,7	29,2%	3,6%	-26,1%
Besteak	-224,1	-3,9%	-33,8%	56,0%
Guztira zerga zuzenak	5.793,1	100,0%	1,7%	-12,2%

*Iturria: Eusko Jaurlaritza*

Hau da, 2012. urtearen aldean, laneko errenten pisua txikiagoa izan arren, eta enpresen, profesionalen eta kapitalaren errentak handitu arren, laneko errentak 2,5 bider baino gehiago dira besteak baino, zuzeneko zergen bidezko diru-bilketan.

#### *Diru-bilketa lurraldez lurralde*

Lurraldez lurraldeko diru-bilketa aztertzen badugu, hau ikusiko dugu:

- Arabako Aldundiak 11.797,4 milioi euro bildu ditu; 2012an baino %0,9 gehiago eta 2008an baino % 11,6 gutxiago.
- Gipuzkoako Aldundiaren diru-bilketa 3.734,3 milioi euro izan da; hau da, aurreko urtean baino % 3,3 gehiago eta duela 5 urte baino % 9,6 gutxiago.
- Bizkaiko Aldundiak 6.220,4 milioi euro bildu ditu, hau da, % 3,5 gehiago aurreko urtean baino eta % 6,8 gutxiago 2008an baino.

#### **EAEko diru-bilketa fiskala lurraldez lurralde 2008-2013 (milioika eurotan eta aldaketa %).**

	Millones euros	2012 Dif. %	2008 Dif. %
Araba	1.797,4	0,9%	-11,6%
Gipuzkoa	3.734,3	3,3%	-9,6%
Bizkaia	6.220,4	3,5%	-6,8%
EAE	11.752,1	3,0%	-8,4%

*Iturria: Eusko Jaurlaritza*



## 2.2 EAEko presio fiskala: zerga hitzartuak

### *Presio fiskala lurraldez lurralde*

Zerga hitzartuen bidezko presio fiskala BPGaren % 18,2 izan da 2013ko urtealdian. Lurraldez lurralde, presio fiskala % 18,8 izan da Bizkaian; % 17,7 Gipuzkoan eta % 17,12 Araban.

### **EAEko presio fiskala lurraldez lurralde. 2013 ( %/BPG)**

	<b>BPG %</b>
Araba	17,2
Gipuzkoa	17,7
Bizkaia	18,8
EAE	18,2

*Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat*


### *Presio fiskalaren bilakaera*

Zerga hitzartuen presio fiskalaren bilakaera aztertzeak aukera emango digu diru-bilketaren inguruan zer gertatu den jakiteko, BPGaren bilakaera kontuan hartuta.

Hurrengo grafikoan ageri da zerga hitzartuen bidezko presio fiskala jaitsi egin dela EAEn; 2008an BPGaren % 19 izan baitzen, eta 2013an, aldiz, %18,2. Horrek esan nahi du 2008ko presio fiskalari eutsi izatera, bildutakoak baino 517,6 milioi euro gehiago bilduko zituztela EAEko Ogasunek 2013an.

Jaitsiera zuzeneko zergetan eta zeharkakoetan gertatu da. Zehazki, zuzeneko zergen presio fiskala honela jaitsi da: 2008an, BPGaren % 9,8 izan zen, eta 2013an, aldiz, % 9. Zeharkako zergen presio fiskala hein txikiagoan jaitsi da: 2008an, BPGaren % 9,1 izan baitzen, eta 2013an, aldiz, % 9.

### Zerga hitzartuen presio fiskalaren bilakaera EAEn. 2008-2013 (%/BPG)




*Iturriak: Eusko Jaurlaritz, Eustat*

EAEko zerga hitzartu nagusien presio fiskala aztertzen badugu, ikusiko dugu laneko errentak zergapetzen dituen PFEZak biltzen duela dirurik gehien. Zehazki, 2013an, EAEko BPGaren % 6,7ren baliokidea bildu du, hau da, 2012an baino % 0,1 gutxiago. Hala ere, azken urteotan 0,3 puntu gehiago igo da haren diru-bilketa BPGarekiko.

Ondotik, BEZak dauka presio fiskalik handiena; hots, BPGaren % 6,6, 2013an. Zerga honen presio fiskala 0,4 puntu igo da azken urtealdian, BEZa 2012an igo baitzen. Horrela, 2008tik hona, zerga honek joera oso desberdinak erakutsi ditu: izan ere, 2008an BPGaren % 6,3 zen; 2010ean % 6,9raino igo zen, eta 2011tik 2012ra, % 6,2raino jaitsi zen.

Sozietateen gaineko zergak BPGaren % 1,8ren baliokidea zergapetu du 2013an. 2012tik hona haren presio fiskala % 0,1 igo bada ere, ikusten da presio fiskala laurden bat jaitsi dela 2008tik hona.

## Zerga nagusien presio fiskalaren bilakaera. EAE, 2008-2013 (%/BPG)



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eustat

### 2.3 Zergaz zergako aitorpena

#### a) Pertsona Fisikoen Errentaren gainerako Zerga (PFEZ)

Datuen arabera, 2010ean. urtean (azken informazioa urte horri dagokio), PFEZean aitorturiko errentaren % 91,8 laneko errentetatik dator; aldiz, % 6,3 bakarrik dator errenta enpresarial, profesional eta artistikoetatik (gainerako % 1,9 gainerako errentetatik iritsi zen). Hau da, PFEZean aitortzen den ia errenta guztia laneko errentetatik dator.

#### Errendimenduen pisu erlatiboa PFEZean (%). EAE, 2010

Lanekoak	Enpre., prof., artistak	Besteak
91,8	6,3	1,9

Iturria: Euskal Ogasunen Urteko Txosten Bateratua

Bestaldetik, laneko errentek, batez beste, 22.632,4 euroko errenta aitortu zuten 2010. urtealdian; hau da, jarduera ekonomikoen bidez batez beste aitortutako errenta baino 10.522,8 euro gehiago, 12.109,6 euro izan baitzen.

Azken bost urte honetako bilakaerak erakusten du lanaren errenta aitortua 1.989,7 eurotan igo dela, batez beste; aldiz, jarduera ekonomikoaren bidez batez beste aitortu den errenta 382,3 euro jaitsi da. Hau da, bien arteko aldea 2.371,9. eurotan handitu egin da.

#### PFEZean batez beste aitortu den errenta (eurotan). 2006-2010

	Lanekoak	Jarduera ekonomikoak	Diferentzia
2006	20.642,8	12.491,9	8.150,9
2007	21.274,4	13.140,9	8.133,5
2008	22.502,8	12.656,0	9.846,8
2009	22.640,3	12.226,5	10.413,8
2010	22.632,4	12.109,6	10.522,8
2006-2010	1.989,6	-382,3	2.371,9

*Iturria: Euskal Ogasunen Urteko Txosten Bateratua*

#### b) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen gaineko Zergak mekanismo asko aurreikusten ditu sozietateek azkenean ordaintzen duten zenbatekoa murrizteko. Horregatik dago hain alde handia tasa nominalaren (hasiera batean, arauak finkatzen duena) eta tasa efektiboaren (azkenean, zerga ordaintzeko erabiltzen duten tasa da) artean. Sozietateen gaineko Zergaren batez besteko tasa nominala (hainbat enpresa mota dira, eta bakoitzak tasa nominal desberdinak ditu) % 26,7 izan zen 2010ean (eskura dagoen azken datua). Tasa hori, ordea, 10 puntutan baino gehiagotan murriztu da, salbuespenen, kenkarien, eta beste mekanismo batzuen ondorioz. Horrenbestez, EAEko sozietateek tasa efektiboaren arabera ordaindu dute zerga: hots, % 16,1.

Azken urte honetako bilakaerak erakusten du igo egin dela hala tasa nominala (% 25,5etik % 26,7ra) nola tasa efektiboa (% 13,1etik % 16,1era). Hala ere, azken 5 urte honetako bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusten da hala tasa nominala nola efektiboa 2006ko tasen azpitik daudela (tasa nominala 2,7 puntu txikiagoa da, eta tasa efektiboa, puntu 1 txikiagoa).

#### Tasa nominalaren eta efektiboaren bilakaera sozietateen gaineko zergan. 2006-2010 (%)

	2006	2009	2010
Tasa nominala	29,4	25,5	26,7
Tasa efektiboa	17,1	13,1	16,1

*Iturria: Euskal Ogasunen Urteko Txosten Bateratua*

Gogoratu beharra dago Sozietateen gaineko Zergak enpresek eta sozietateek izan dituzten etekinak zergapetzen dituela; beraz, etekinik izan ez dutela edo galerak izan dituztela diotenez ez dute zerga hau ordaintzen.

Zerga honetan gertatzen den iruzurraren erakusgarri, 10 sozietateetik ia 6k aitortzen dute galerak izan dituztela, eta zerga honi lotuta dauden enpresa eta sozietate guztien hiru laurdenek baino gehiagok aitortzen dute 6.000 eurotik beherako etekinak izan dituztela. Begi-bistakoa da datu horiek ez dutela errealitatea erakusten.

### Aitorpen kopurua sozietateen gaineko zergan. EAE, 2010

Aitorpenaren emaitza	Aitorpen kopurua	Aitorpenak %
Negatiboa	40.164	57,7%
0 – 6.000	13.378	19,2%
6.000 – 60.000	8.866	12,7%
60.000 – 300.000	4.354	6,3%
300.000 – 600.000	984	1,4%
> 600.000	1.890	2,7%
<b>GUZTIRA</b>	<b>69.636</b>	<b>100%</b>

*Iturria: Euskal Ogasunen Urteko Txosten Bateratua*

## 3. ZERGA HITZARTUEN FISKALTASUNA NAFARROAN. DIRU-BILKETA ETA PRESIO FISKALA

### 3.1 Nafarroako diru-bilketa

Nafarroako zerga hitzartuen bidezko diru-bilketa 2.907,1 milioi euro izan da 2013an; hau da, 2012an baino 71,5 milioi gutxiago bildu dira; % 2,4 gutxiago.

Zerga hitzartuen bidezko diru-bilketak azken urteotan Nafarroan zer bilakaera izan duen aztertzen badugu, ikusiko dugu 2008tik hona guztizko diru-bilketa likidoa 112,7 miliotan jaitsi dela; hau da, % 3,7.

Egia da diru-bilketa nabarmen jaitsi dela azken urteotan, eta agintariek aitzakia hori erabiltzen dute ezartzen ari diren murrizketak eta doikuntzak justifikatzeko. Baina diru-bilketaren jaitsiera ez zaio bakarrik krisiari zor, ekonomiak diru-bilketaz bestelako bilakaera izan baitu. Izan ere, epealdi berean, BPGa % 0,5 igo da; diru-bilketa, aldiz, % 3,7 jaitsi da. Horren atzean zergen inguruko erabakiak daude, bai eta Nafarroan egiten den zerga-politika ere.

**Zeharkako diru-zergen bidezko diru-bilketaren eta BPGaren bilakaera (milioka eurotan). Nafarroa, 2008-2013.**

	2008	2012	2013	2008-2013 Dif. %
Diru-bilketa	3.019,8	2.978,6	2.907,1	-3,7
BPG	18.870,1	19.220,1	18.957,2	0,5

*Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN*

Diru-bilketa zuzeneko zergetatik edo zeharkakoetatik datorren xeheki aztertzen badugu, hauxe ikusiko dugu:

- Zeharkako zergen bidezko diru-bilketa 1.451,2 milioi euro izan da; hau da, diru-bilketa guztiaren % 49,9.
- Zuzeneko zergen bidezko diru-bilketa 1.425,2 milioi euro izan da; hau da, diru-bilketa guztiaren % 49.
- Gainerako diru-sarrerek (tasak, zehapenak, berandutzeak) 30,7 milioi euroko bilketa eragin dituzte; guztiaren % 1,1.

**Zerga hitzartuen bidezko diru-bilketa (milioika euro, %/guztizkoa eta aldaketa %). Nafarroa, 2008-2013**

	Milioi euro	%	2008 Dif.%
Zeharkako zergak	1.451,2	49,9	12,8
Zuzeneko zergak	1.425,2	49	-16,2
Gainerakoa	30,7	1,1	-3,7
Zergak guztira	2.907,1	100	-3,7

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

Zuzeneko zergen bidezko diru-bilketa nola dagoen banatua aztertzen badugu, hauxe ikusiko dugu:

- Laneko PFEZ bidezko diru-bilketa 1.035,3 milioi euro izan da; hau da, zuzeneko diru-bilketaren % 72,6. Diru-sarrera horiek % 1,1 jaitsi dira, 2008koen aldean (1.046,3 milioi bildu ziren). Hau da, zuzeneko zergen bidez bildutako 4 eurotik ia 3 laneko PFEZari dagozkio.
- Enpresen, profesionalen eta kapitalaren errentek 334,3 milioi euroko diru-bilketa eragin dute; hau da, zuzeneko diru-bilketaren % 23,5, eta 2008an baino % 44 gutxiago. Honela osatua egon da:
  - Sozietateen gaineko Zergak 194,3 milioi euroko diru-bilketa eragin du; hau da, zuzeneko zergen % 13,6. 2008tik hona, zerga honen

diru-bilketa % 53,7 erori da (419,3 milioi biltzetik 194,3 milioi euro biltzera igaro baita).

- Enpresen, profesionalen eta kapitalaren PFEZak 140 milioi euroko diru-bilketa eragin du 2013an; hau da, zuzeneko diru-bilketaren % 9,8. Diru-sarrera horiek % 21,1 jaitsi dira, 2008aren aldean.

### Zuzeneko zergen bidezko diru-bilketa, zerga motaren arabera, egitura eta bilakaera. Nafarroa, 2008-2013

	Milioi euro	%	% Dif.
Laneko PFEZ	1.035,3	72,6	1,1
- Sozietateen gaineko zerga	194,3	13,6	-53,7
- Empr., Prof, eta Kap. PFEZ	140	9,8	-21,1
Enpr., Prof., Kap. Errentak	334,3	23,5	-44
Zuzeneko Zergak Guztira	1.425,5	100	-16,2

*Iturria: Nafarroako Gobernua*


### 3.2 Zerga hitzartuen presio fiskala

Nafarroako zerga hitzartuen presio fiskala BPGaren % 15,3 izan da 2013an; hau da, ekonomiak Nafarroan eragindako 100 euro bakoitzetik 15,3 euro zerga hitzartuen diru-bilketara bideratu dira.

Honako grafiko honetan ageri den bezalaxe, azken urtean presio fiskala 0,2 jaitsi da eta, 0,7 puntu, 2008tik hona. Horrek esan nahi du 2013an 2008ko presio fiskala mantendu izan balitz, 132,7 milioi euro gehiago bilduko zirela egiazki bildutakoak baino.

Zeharkako zergen presio fiskala BPGaren % 7,7 izan da 2013an; hau da, 2008an baino 0,9 puntu gehiago. Zuzeneko zergen presio fiskala, aldiz, %7,5 izan da; hau da, 2008koa baino 1,5 puntu gutxiago.

### Zerga hitzartuen presio fiskalaren bilakaera Nafarroan 2008-2013 (%/BPG)



*Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN*

Zerga nagusien presio fiskalak bilakaera desberdina izan du azken urteotan.


BEZak bilakaerarik aldakorrena izan du, hein batean araudia bera aldatu delako. Hala ere, hala 2008an nola 2013an, zerga honek BPGaren antzeko diru-bilketa eragin du; % 4,8 eta % 4,9, hurrenez hurren, baina 2011n % 6,2 izatera iritsi zen.

PFEZaren laneko errendimenduek bere horretan diraute, 2013an % 5,5 izan baita, hau da, 2012an eta 2008an adina.

Sozietateen gaineko Zergak izan du jaitsierarik handiena. 2008an, BPGaren % 2,2 izan baitzen, eta, azken bi urte honetan, aldiz, % 1,0.



## Zerga nagusien presio fiskalaren bilakaera Nafarroan 2008-2013 (%/BPG)



Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

### 3.3 Zergen aitorpena Nafarroan

#### a) PFEZ

Laneko errentak jarduera nagusi gisa aitortzen dituztenek batez beste 20.531,5 euroko errenta aitortu zuten PFEZean 2012an; enpresa jarduerak aitortzen dituztenek, aldiz, 12.758,1 euro. Hau da, laneko errenta aitortua, batez beste, 1,6 aldiz handiagoa da errenta enpresarialek batez beste aitortu dutena baino.

Gainera, urtetik urtera gero eta handiagoa da aitorturiko errenta moten arteko aldea. Izan ere, laneko errenta aitortua batez beste 760,2 eurotan jaitsi da 2008tik hona; aldiz, errenta enpresariala 2.188,8 jaitsi da.

Datu horiek dagozkio PFEZean aitortzen den errendimendu nagusiari; horrenbestez, estatistika horretan ez dira sartzen osagai bat baino gehiago dituzten pertsonen errendimenduak (esate baterako, errenta enpresarialak eta lanekoak, edo profesionalak, kapitalekoak).

**PFEZean batez beste aitortu den errenta (eurotan).  
Nafarroa, 2008-2012**

	<b>Laneko errentak</b>	<b>Enpresa errentak</b>
2008	21.291,7	14.946,9
2009	21.072,7	13.405,3
2010	20.812,8	13.080,3
2011	21.005,6	13.185,7
2012	20.531,5	12.758,1
2008-2012	-760,2	-2.188,8

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

*b) Sozietateen gaineko zerga*

Sozietateen gaineko zergak pertsona juridikoen jarduera ekonomikoa zengapetzen du, eta etekinak badaude baizik ez da ordaintzen.

Zerga honek aldaketa asko izan ditu, beti enpresek ordaindu beharreko zenbatekoa murriztera bideratuak. Horrela, legea 1996an egin zenean, enpresa guztien tasa nominala % 35 izan zen, baina orain tasa nominala %30 da urteko 10 milioi eurotik gorako negozioa duten enpresentzat; % 27, milioi bat eta 10 milioi euro arteko negozioa duten enpresentzat, eta % 20, milioi batetik beherako negozioa duten enpresentzat.

**Zergen tasak (%) sozietateen gaineko zerga. Nafarroa 1996-2014**

	<b>1996</b>	<b>2013</b>
Negozioa > 10 milioi	35	30
Negozioa 1 eta 10 milioi artean	35	27
Negozioa < milioi 1	35	20

*Iturria: Sozietateen gaineko Zerga arautzeko 24/1996 Foru Legea*

Gainera, beste figura juridiko batzuk daude tarte horietatik kanpo, hala nola aseguru-mutuak, eta lan-istripuetako mutuak, kredituko sozietate kooperatiboak eta kutxa ruralak (% 25eko zerga tasa dute).

Era berean, tratamendu berezia dute kapital aldakorreko inbertsio-sozietateek, finantza izaerako inbertsio-funtsek, eta higiezinetak inbertsio sozietateek edo funtsek, % 1eko zerga-tasa ordaintzen baitute.

Dena den, batez besteko tasa % 25,8 izan zen 2012an (argitaratu diren azken datuak), 2011tik 1,7 puntu jaitsi ondoren; beraz, 2009ko antzeko balioetan dago (% 25,7).

Hala ere, araudiaren diseinuak berak ahalbidetzen du enpresek azkenean tasa apalago bat egiazki ordaintzea. Horrela, 2012an, % 14,5 izan da, hau da, tasa orokorraren (% 30) erdia baino gutxiago.

Hortaz, horrek esan nahi du Nafarroan enpresek beren etekinen % 14,5 ordaintzen dutela, batez beste. 2012an, zerga horren bitartez, 201,4 milioi euro bildu ziren; beraz, tasa efektiboa % 15,5 izan beharrian, tasa orokorraren berbera izan balitz (% 30), 215,3 milioi gehiago bilduko ziren.

#### Batez besteko tasa eta egiazko tasa (%) sozietateen gaineko zerga 2009-2012

	2009	2010	2011	2012
Batez bestekoa	25,7	27,4	27,5	25,8
Benetako tasa	14,3	15,6	15,3	14,5

*Iturria: Nafarroako Gobernuak*

## 4. ERREFORMA FISKALERAKO NAFARROAKO GOBERNUAREN PROPOSAMENA

2014ko ekainaren 25ean Nafarroako Gobernuak erreforma fiskala egiteko bere proposamena aurkeztu zuen, PFEZa, Ondare Zerga eta Sozietateen Gaineko Zerga ukitzen dituen. Hiru zerga hauek jaisten dituen erreforma da, 75 milioi eurotako eragina duena. Hau da, Nafarroako Gobernuaren erreforma aurrera ateratzen bada, 75 milioi euro gutxiago bilduko lirateke.

### 4.1 Nafarroako Gobernuaren erreforma fiskalaren neurri nagusiak

- PFEZ:
  - Karga osagarria kentzea 53.407 euro arteko errentei, eta horiek baino handiagoak diren errentei %50 jaitea karga osagarria.
  - Ezarri beharreko tipoen jaitsiera. PFEZaren likidazio-oinarriari ezartzen zaizkion tipo guztiak jaitea, tipo baxuena izan ezik. Jaitsierarik handiena errenta tarte altuenei ematen zaie (125.000 eurotik gorako errentei 5 eta 7 puntu artean jaisten zaie tipoa), eta errenta tarte txikienei egiten zaien jaitsiera puntu erdiko da.

**PFEZren tipoen jaitsiera errenta tarteen arabera (%)**

Likidazio-oinarria (...tik)	2013	2016	Jaitsiera (%)
0	13,0	13,0	0,0
3.825,01	22,5	22,0	0,5
8.499,01	25,5	25,0	0,5
17.526,01	29,5	28,0	1,5
30.805,01	38,0	36,0	2,0
48.480,01	42,5	40,0	2,5
53.407,01	45,0	41,0	4,0
88.000,01	47,0	42,5	4,5
125.000,01	49,0	44,0	5,0
175.000,01	51,0	44,0	7,0
300.000,01	52,0	46,0	6,0

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

- Aurrezki errentei ezartzen zaizkien tipoen jaitsiera. Gobernuak hiru errenta tarte proposatzen ditu, %19tik %24era doazenak:

**Aurrezki errentei ezarritako tipoak (%)**

Likidazio-oinarria (...eurotatik)	Tipo aplikagarria (%)
	19,0
10.000,01	22,0
18.000,01	24,0

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

- Ondarearen zerga:
  - Gutxieneko exentua 300.000 eurotik milioi 1 euro tara igo
  - Tarte guztiei ezarritako tipoak %20 jaisten dira (%016tik %2ra doaz). Beraz tipo altuena ezartzen zaien izango dute jaitsierarik handiena, zerga honen progresibitatea are gehiago urrituz.
- Sozietateen gaineko zerga:
  - Tipo orokorraren jaitsiera ematen da, eta tarte guztientzat %20an ezartzen da. Hau da, 10 milioi euro baino negozio handiagoa duten enpresei tipo orokorra 10 puntutan jaitsi zaie (%33,3), milioi 1 eta 10 milioi euro arteko negozioa duten enpresei 7 puntu (%25,9) jaitsen zaie tipoa, eta milioi 1 euro baino negozio txikiagoa duten enpresei tipoa %20an mantentzen zaie.

### Sozietateen gaineko zergaren tipo orokorra (%)

	2013	Proposamena	%
Negozia > 10 milioi	30	20	33,3
Negozia 1 eta 10 milioi artean	27	20	25,9
Negozia < milioi 1	20	20	0

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

- Tipo hau txikiagoa izango da kooperatiba, lan sozietate, fundazio, eta abarrentzat (%10 eta %17 artekoa).
- %10eko tributazio zorua ezartzen da. Dena den, gutxieneko horren azpitik ordaindu ahal izango dute I+G+b-n inbertsioa egiten duten enpresek, edo behin-betiko enplegua sortzen dutenek, %8ko zoru tributarioa izango dutela.

#### 4.2 Nafarroako Gobernuaren erreforma fiskalaren proposamenaren balorazioa

Erreforma fiskala egiteko proposamen hau egun egiten den fiskalitate politikaren jarraipena da. Beraz, ez da inolako erreforma, politika berdinen pauso bat gehiago besterik ez da.

- Nafarroako Gobernuaren proposamenaren ondorio nagusia diru sarrera 75 milioi eurotan jaistea da. Eta jaitsiera hau errenta altuenei eta enpresei zergak jaitsiz emango da batik bat:
  - PFEZn 125.000 euro baino gehiagoko errentak dira onurarik handienak izango dituztenak, %5 eta %7 arteko jaitsierekin. Eta baita aurrezki errentak ere, tipo orokorraren oso azpitik jarraituko baitute.
  - Ondarearen Zerga jaitsiko da berriro, tipo guztiak neurri berean murriztuz (%20), eta ordaindu beharreko gutxieneko kopurua milioi 1 euro tara igoz. Zerga hau asko jaitsi da, eta hondar-zerga izateko bidean doa.
  - Sozietateen gaineko Zerga berriz ere murrizten da, enpresa handientzat gehien bat. Gogoratu beharrekoa da zerga honen bilketa %53,7 erori dela 2008tik, eta tipo efektiboa (benetan ordaintzen dena) %14,5koa dela.
- Diru bilketa txikiagoak zerbitzu publiko txarragoak eta babes sozial txikiagoa suposatzen du. Proposamen honek hezkuntzaren, osasun publikoaren, zerbitzu sozialen, pentsioen eta abarren egoera okertzen duen murrizketa politikarekin jarraitzea ekartzen du. Babes sozial handiena behar dutenen aurkako erreforma da hau (langabetuak, etxerik gabeak, erretiratuak...).

c) Progresibitatearen aurkako erreforma fiskala da, funtsean zergak errenta altuenei eta enpresei jaitsi besterik ez baitu egiten. Era honetan honez gero bidegabea den fiskalitatea are gehiago okertzen da, non diru bilketa oso txikia den (Europako batez bestekoa baino BPGaren 9,9 puntu txikiagoa) eta zamaren zatirik handiena lan errenten gain dagoen.

Erreforma honek kapitalaren pilaketa gizartearen zati txiki batean areagotzen du.

d) Iruzur fiskala ez da aipatu ere egiten. Gobernuak iruzur fiskala ahalbidetzen jarraitzen du, iruzurra aipatu ere egiten ez duen honetan.

e) Sozietateen gaineko Zerga jaisten da enpresek diru gehiago izanik, diru hau inbertitu eta lanpostuak sortuko dituztela argudiatuz. Baina errealitateak hau faltsua dela erakusten du, izan ere, zerga karga txikiena duten herrialdeak dira langabezia altuena dutenak. Errealitateak baieztatu duena bestelakoa da, soldatak altuagoak diren herrialdeetan, eta aberastasuna era justuago batean banatzen denetan, produktu eta zerbitzuen eskaria handitzen dela, eta honekin lanpostuak sortzen direla.

## 5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Urteak daramatzagu salatzen Hego Euskal Herriko fiskalitateak bi arazo larri ekarri dituela berekin:

- Ez dago behar adina diru-sarrera publikorik gizarte beharrak asetzeko.
- Zerga-politika bidegabea, eta soldatetik ez datozen errentetan dagoen iruzurrarekiko permisibitatea.

ELAk proposamen ugari egin izan ditu fiskalitate arloan. Dokumentu hau bukatzeko neurri hauetan sakonduko dugu.

### 5.1 Iruzur fiskalaren aurkako borroka

Iruzur fiskala, nagusiki soldatetik ez datozen errentek eragindakoa, HEHko zerga-sistemaren gaitzik handiena da. Horren ondorioz:

- Ikuskaritza mailak areagotu behar dira. Hau da, soldatetik ez datozen errenta guztiak ikuskatu behar dira gehienez ere 5 urteko epean PFEZan, Sozietateen gaineko Zergan, eta BEZean; horrek esan nahi du kolektibo horretan urteko ikuskaritza % 1,2tik gutxienez % 20ra igaro behar dela.
- Ikuskaritzaren lan metodoak aldatu behar dira:

- Ikuskaritza lanak iruzurrik larrienera birbideratzea: enpresa eta ondare handiak, izen-mailegatzailleak, paradisu fiskalen erabilera, dirua zuritzea, BEZaren gaineko iruzurra, faktura faltsuak, etab.
- Ikuskaritzaren helburuak aldatzea, hau da, ikerketa bera bultzatzea egiaztatze hutsaren aldean; horretarako, langile taldeak handitu behar dira, eta pisu handiagoa eman behar zaie ikerketaz arduratzen diren pertsonari.
- Ikuskaritzan egiten den lanaren emaitzak eta eraginkortasuna handitzea: talde lana lagungarria izango litzateke.
- Beharrezkoa da ikusketa gehiago egitea eta, horrekin bat, nabarmen handitzea zerga administrazioa bideratzen diren ekonomia, teknika eta giza baliabideak (bereziki, iruzurraren aurka aritzen direnak), harik eta Europako herrialdeetako batez bestekoarekin parekatu arte.
- Delitu fiskala sustatzen dutenen (profesionalak, bulegoak) jarduera zehaztea, horrelako lanak egiteari probetxurik ez ateratzeko.
- Paradisu fiskalen erabilera oztopatzea, bertan diharduten pertsonak edo entitateak zigortuz; finantza-entitateak, bereziki:
  - a) Haien nortasun juridikoa ez aitortuz, hemen aritzeko modurik izan ez dezaten.
  - b) Zerga-karga handi baten bidez ekonomikoki zigortuz, probetxugarria ez izateko.
- Egoitza paradisu fiskal batera eramaten duten pertsona edo sozietate guztiak egiaztatzea.

Ez jo kenkarizat CDI bat (informazioa trukatzeko mekanismoa) sinatu ez duten herrialdeetatik datozen gastuak.

- Iruzurraren aurkako bulego diziplina-anitz bat sortzea, instituzionala. Zerga administrazioaren mendean egon behar du eta bere baitan bildu iruzur fiskalaren ikerketan, ikuskaritzan edota haren kontrako jazarpenean diharduten guztiak. Departamentuek koordinaziopean aritu behar dute iruzurraren eta kapitalak zuritzearen aurkako borrokan, xede honekin:
  - Erabateko eraso egitea iruzurraren aurka, eta ez eraso partziala.
  - Iruzur fiskal antolatua ikertzea, kapitalen zuriketa eta delinkuentzia ekonomikoa.
- Polizia fiskala sortzea:
  - Zerga Administrazioaren mendean aritzeko eta poliziaren unitate bereziak Aduanak Zaintzeko Unitateak eta beste biltzeko.
  - Polizia judizialaren izaera izango luke, delitu fiskalak, kontrabandoa, kapital zuriketa, ondasun altxamenduak eta dokumentu faltsutasunak arlo penalean ikertzeko.

- Fiskaltza eta Auzitegiak (epaileak eta polizia judiziala) iruzurraren eta iruzur handiaren aurkako borrokan (delitu ekonomikoak, zuriketa) espezializatzea.

### 5.2 Zerga itzurpenaren aurka borrokatzea

- Zerga-itzurpena oztopatzea; hau da, zerga gutxiago ordaintzea zilegi egiten duten lege-mekanismoak eragotzi behar dira. Horrelako mekanismoak, bereziki, aberats handiek eta enpresek erabiltzen dituzte, eta edozein lan errentak baino zerga gutxiago ordaintzen dute. Onartezina da legeak horrelako zerga-sistema bidegabe bati babesa ematea. Horren haritik, zerga ezarri behar zaie Hego Euskal Herrian ari diren edo hemen egoitza duten talde multinazionalai eta beste enpresa batzuei, beren jarduketak arrazoi fiskalengatik beste toki batera eramaten badituzte.
- Gaur egungo zerga-itzurpenerako dauden molde berrien aurka borrokatu behar da. Izan ere, errealitate berri baten ondorio dira, eta jarduketa molde berriak eta baliabide berriak behar dira haren aurka borrokatzeko. Esate baterako, hortxe ditugu hainbat estatutan diharduten multinazionalak; azkenean, ahalik eta gutxiena non ordain dezaketen, hantxe ordaintzen dute.

### 5.3 Sozietateen gaineko zerga

- Familia ondare handiak zerga hau ordaintzetik salbuetsita uzten dituzten enpresa familiarrak edo holdingak osatu daitezen eragozteko. Behar bezalako arauak onestea oro har ingeniariak fiskala eragozteko.
- Sozietateen gaineko Zergaren araubide bereziak ezabatzea (SICAV, atzerriko balioak dauzkaten enpresak, kooperatibak, inbertsio funtsak eta beste).
- Pertsona bakarreko sozietateak era daitezen eragozteko, horrelako sozietateak eratzen baitira, PFEZa ordaindu beharrean, Sozietateen gaineko Zerga ordaintzeko, horrela zerga gutxiago ordaintze aldera.
- Tasa nominala % 35en ezartzea.
- Gutxienezko tributazio efektiboa ezartzea: % 24.
- Kenkari fiskal erregresiboak mailaka ezabatzea; izan ere, zerga-sistema eta haren kontrola zaildu eta oztopatzeaz gain, kenkari horien ondorioz egungo tasa efektiboa nominalaren erdia bakarrik da.

### 5.4 Ondarearen gaineko zerga

Ondarearen gaineko Zergak dirua biltzeko egiazko bitartekoa izan behar du. Izan ere, salbuetsitako minimoak altuak dira, eta tasa apalak aplikatzen dira; horren ondorioz, oso diru gutxi biltzen da. Gogoratu behar da zerga hau



EAEEn ezabatu aurreko azken urtean, 2007an, 180 milioi eurotik gorako bilketa eragin zuela. Orain, aldiz, 2012an berriro indarrean jarri denean, 115,50 milioi bakarrik bildu dira. Nafarroan, txosten ekonomikoaren arabera, 2009an 70 milioi euro gutxiago bildu ziren, hots, zerga hori kendu zenean. 2013an, berriz ere indarrean jarri ondoren, zerga horren bidez, 51,2 milioi bildu dira.

### 5.5 PFEZ

Zergaren egungo egitura zerga-sistema bidegabe baten oinarri da. Horrenbestez:

- PFEZaren eskalan galdutako progresibotasuna berreskuratu behar da, hala tasei nola tarifaren tarteei dagokienean. Orain arte egindakoaren kontrakoa egin behar da; hau da, errentarik apalenei tasa aplikagarria jaitsi behar zaie eta errentarik altuenena igo, oso urrun baitago duela urte batzuetako % 56tik.
- Kapitalaren errentek duten tratu pribilegiatua ezabatu behar da, Bizkaian eta Araban % 22ko tasa maximoaren arabera ordaintzen baitute; Gipuzkoan, % 23koaren arabera, eta % 19 eta % 21ekoaren arabera Nafarroan. Zergaren zerga-oinarriak bakarra izan behar du, diru-sarrera guztiek tratamendu bera izan dezaten. Kapitalaren errentei errekaratu bat ezarri beharko litzaieke.
- PFEZaren zenbatespen objektiboaren araubidearen moduluen bidezko araubidea ezabatzea, sistema horrek legez zerga gutxiago ordaintzea ahalbidetzen baitu PFEZaren tarifa aplikatuta ordaindu beharko liritekeenak baino.
- Era automatikoan bermatzea PFEZaren tarifaren urteko deflaktazioa, KPIa oinarri harturik, prezioen igoerak eragin ez dezan zerga horren igoera estali eta bidegabea.
- PFEZaren kenkariak ezabatzerantz jotzea, batez ere erregresiboenak. Pentsio publikoentzat tributazio hobea ezartzea Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeentzat (EPSV) baino, gaur egun kontrakoa gertatzen baita.
- Kapital moduan jasotako errenta irregularrei aplikatzen zaien salbuespena ezabatzea, gaur egun zati handi bat salbuetsia baitute; oro har, % 40, baldin eta bi urtean baino gehiagoan eta bostean baino gutxiagoan sortzen badira hala EAEEn nola Nafarroan, edota % 50, baldin eta bost urtean baino gehiagoan sortzen badira edota erregelamendu bidez denboran modu irregular nabarmenean jasotakotzat jotzen direnetarako, Nafarroan.

### 5.6 Finantza sektorea

Bukatu behar da finantza sektoreari zerga arloan ere ematen zaion tratu pribilegiatua. Beraz, beharrezkoa da:

- Zerga berri bat sortzea, zorraren bidezko banku finantzaketa probetxugarria izan ez dadin; hau da, zerga horrek entitateen pasiboa zergapetuko luke, hau da, haien zorrak.
- Finantza jardueri buruzko zerga bat; zerga horrek tasa berezia izango luke soldata berezientzat eta aparteko etekinentzat.
- Finantza transakzioetarako zerga.

### 5.7 Beste neurri batzuk

Tributazio gutxieneko bat ezartzea oinordetza eta dohaintzetan:

- a) Ezabatuko dira oinordetza eta dohaintza gehienek zergarik batere ez ordaintzea eragiten duten salbuespenak.
- b) Tasa progresibotasunez handituko da, oinordetzarik eta dohaintzarik baliotsuenek zergak hein handiagoan ordain ditzaten.

### 5.8 Informazioa eta gizartearen parte-hartzea

- Aldian behin, iruzur fiskalari buruzko azterlanak egitea.
- Nafarroako Gobernuak nahiz EAeko ogasunek ez dute inola ere zerga kontuei buruzko nahikoa informazio ematen, fiskaltasuna haien eskumen nagusia izanik ere. Zerga guztiak zehatz-mehatz ordaintzen dituztenek, langileriak oro har, zer marko dagoen ezagutu behar dute. Gardentasuna funtsezkoa baita fiskaltasunean. ELAk, beraz, aldarrikatzen du aldian behin informazio nabarmen eta zehatza eman dadila, urtealdien artean konparatzeko modukoa, zerga bakoitzari eta ikuskaritzari buruzko kudeaketan dauden parametro garrantzitsuenen inguruan.
- “Ogasuna denok bagara”, denok ere erabaki behar dugu. Prozesu parte-hartzaile bat egin beharra dago, zerga-politika definitze aldera, eta bitarteko instituzionalizatuak izan behar dira eskura, sindikatuek parte har dezaten. Zerga-erreformak egiterakoan, gizarteari kontsulta egin behar zaio, erreferenduma erabiliz.

### 5.9 Erabateko eskumenak zerga arloan

Gaur egun, zerga batzuk Espainiar Estatuan erabaki eta Hego Euskal Herrian kudeatzen dira, eta beste batzuk Madrilan erabaki eta bertan kudeatzen dira. ELAk zerga guztien gaineko legeak Hego Euskal Herrian egiteko eta kudeatzeko eskubidea aldarrikatzen du.

### 5.10 Eginkizunak aldatzea EAEn

Eusko Legebiltzarrak zerga arloari buruzko legeak egitea, eta Zerga Koordinaziorako Organoaren eginkizuna huts-hutsean informazioa trukatzea eta kudeaketa egitea izan dadila.

Maiatzaren 30eko 3/89 Zergapideen Elkar-egokitasun, Erakidetasun eta Lankidetasunen Legearen, bai Estatutuaren, bai Lurralde Historikoen Legearen eta Ekonomia Itunaren beraren interpretazioa ere argiak dira: lege maila duten arauak egiteko ahalmena bakar-bakarrik Legebiltzarrari dagokio, Batzar Nagusiek onartzen dutena Forua Arauak baitira.

Dena den, erreforma fiskalak Zerga Koordinaziorako Organoan hitzartu eta proposatzen dira, eta erakunde horretan ordezkaritza parekidea dute Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek. ELAk egoki ikusten du Eusko Legebiltzarrak zerga arloari buruzko legeak egitea.

